

Krokodiloa ohe azpian

Mariasun Landa



Krokodiloa ohe azpian

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2015eko Maiatzean.

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Azala eta barruko irudiak:

Antton Olariaga

Maketazioa:

Erein

© Mariasun Landa

© EREIN. Donostia 2015

ISBN: 978-84-9746-940-1

L. G.: 554/2015

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Krokodiloa ohe azpian

Mariasun Landa

HAUR ETA GAZTE LITERATURAKO
ESPAINIAKO SARI NAZIONALA 2003



erein

ARGITALPEN BERRIRAKO OHARRA
(2015)

Krokodiloa ohe azpian kontakizun honek Tolosako Udalak antolatutako “Antonio Maria Labaien” narrazio laburren lehiaketa irabazi zuen 2002an. Urte hartako otsailean egin zen lehen argitalpena.

2003an irabazi zuen Espainiako Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionala.

2006an, nazioarteko IBBYren Ohorezko Zerrendan sartua izan zen.

2015ean egin da argitalpen berri hau. Eta hori dela eta, autoreak testu berri bat erantsi dio lehengo kontakizunari: *Krokodiloaren irribarrea*.

Mari Jose Olaziregik hitzaurre bat idatzi du propio edizio berri honetarako.

HITZAURRE KROKODILITIKOA
Mari Jose Olaziregi, *Krokokritikaria*

Oroitzen naiz nolako poza sentitu genuen *krokokritikarion* taldean Mariasun Landaren ipuina irakurri genuenean. Oso gutxitan izaten dugu aukera horrelako opariak jasotzekoa eta hasieratik esan behar dut krokokritikari honen letaginek gustuzko klaskatekoa eman zutela liburua *irenstean*. Klaskateko baino gehiago *danbateko* esan beharko nuke, barreari ezin eutsiz geratu bainintzen lehengo orriak irakurri ahala. Egia esan, Mariasun Landaren *fansclub* bereziko kide izan naiz betidanik, eta bere ipuinen umore eta egoera absurdoek bizipoz bat baino gehiago eman didate. Gogoratzen ditut, esaterako, *ballerina* dotore izan nahi zuen Errusika izeneko arkakuso ausarta, Romeo eta Julietaren etxean bizi ziren sagu goseti koadrila, txori baten bihotza zuen elefantearen abentura arriskutsua, edo urpekari izateko jaiotako ahatearen istorioa. Krokodiloon ondoan animalia ez

oso nobleak izan arren (*arkakuso, sagu, elefante, ahate*), dibertigarriak iruditu zaizkit beti eta ausartak, nola ez, hori baita Landaren ipuinetan azpimarratzen zaiguna, leihotik salto eginez bere buruaz beste egiten zuen gal-tzerdiak zioen bezala, bizitzea arriskatzea dela, norberaren amets eta desiren alde borrokatzea.

Edonola ere, eta nire debozioko *Iholdiren* baimenarekin, aitortu behar dut esku artean duzun ipuin honek eman dizkidala pozik handienak. Halaxe sentitu dut, esaterako, unibertsitateetan edo eskoletan irakasleekin izan ditudan saioetan, *Krokodiloa ohe azpian* ipuinak engantxatu egiten zituela, eta baita euren ikasleak ere, “absurdo” edo “angustia” bezalako hitzen eskutik bidaia literario zoragarrietan abiatzen zirenean. Horregatik esan nion baietz Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionalan Euskaltzaindiaren ordezkari izateko egin zitzaidan proposamenari. Ongi ezagutzen nuen saria, eta banekien espezie zinez arriskutsuko kide krokodilitikoak aurkituko nituela epaimahaian. Gainera, 2003ko udazken hartan ongi babestuta joan nintzen Madrilera. Lacanen laguntzaz irabazi zuen saria ipuinak, hala hitz egitea zilegi bazait. Izan ere, epaimahaiaren eztabaida hortik joan baitzen, ama asfixiagarria irudikatzeke krokodiloa erabili zuen Lacanen esanen ildotik.

Ordurako, Madrilera joana nintzenerako, aztertuak nituen, adiskide psikoanalista baten laguntzaz, ipuineko protagonistaren obsesio, angustia edo fobiak. Esan liteke,

bere beldurrak krokodilo batean gauzatuak ikusten dituen J.J. protagonistarekin bat egin dezaketela irakurle gehienek, gazte ala heldu. Eta dudarik gabe, tratamendu psikiatrikoak edo botika antidepresiboak parodiatzen dituzten ipuineko pasarte umoretsuez gozatu genuen, edo Mariasun Landaren unibertso literarioari berezkoa zaion erritmo arin eta prosa zehatzaz, edergailurik gabeko narrazioaz. Amodioa irtenbide bat –behin behinekoa izanda ere– dela sinetsi genuen irakurleok ipuinak aurrera egin ahala, eta administrari hits honen patu baikorraz poztu egin ginen barneko mamu handi hori, krokodilo formakoa, menderatzea lortzen duenean.

Epaimahaiak argi izan zuen *Krokodiloa ohe azpian* kontakizun honek saria merezi zuela, ipuin bikaina zela, irakurleen hausnar eta emozioak pizteko gaitasuna zuena. Ezin adierazi sentitu nuen bihotzondokoa. Goizean goiz esnatua nintzen Madrilera joateko eta zuzenean itzuli nintzen Ingalaterrara, ikasketekin jarraitzeko asmoz. Zentzu bikoitzean egin nuen hegan egun hartan: pozaren pozez, eta ziztu bizian unibertsitatera bueltatu ninduen hegazkinean. Bertara igotzear nengoela, ordu-rako saltoka zegoen Mariasun Landari deitzeko aukera izan nuen, eta baita kazetari adiskide bati ere. Euskal kulturarentzat hain gogorra izan zen 2003 hartan, pozarren ospatu genuen berri ona. Oraintxe berriro ospatzen dugun bezala, argitalpen berri honen aitzakian.

Bejondeizula, krokoirakurle!

J.L. Ruiz de Munain-i



– 1 –

J.J. zazpitan esnatu zen goiz hartan. Beti bezala. Garbitu eta bizarra egin zuen. Beti bezala. Laranja ura hartu zuen. Beti bezala. Eta gero janzten hasi zen. Txukun eta arduraz jantzi ohi zen, bere estiloari halako kutsu sport eta ozarra ematea ahaztu gabe, banku bateko administrari bati zegokion bezala. Oinetakoak ziren bere itxurari eransten zion azken ukitua, eta goizero errepikatzen zuen errito berbera: lau hankan jarri, eta bezperan ohepera botatako zapatak bilatu. Keinu aldagaitza horixe, zapatak ohepera botatzearena. Dena den, horrek ez zuen esan nahi bere janzkeraren alderdi hura zaintzen ez zuenik. Aitzitik, zapatak ohepean aurkitu ondoren, garbitu eta lustrea ematen zien patxadaz, beti ere Eulalia andrea gogoan zuela, sukurtsaleko enplegatuetan beteranoena, xehetasunei gehien erreparatzen ziena, zirikatzaileena...

– 15 –

–Hara, Juan Jose, nola dituzun zapatak! –esan zion behin–. Emazkidazu eta berehala garbituko dizkizut, ezin sartuko zara zuzendariagana piura horrekin!

J.J.-k gogoan zuen beti nolako lotsa pasatu zuen egun batean, batez ere Elenagatik, bulego nagusikoek praktikak egitera bidali zieten neskagatik. Ileheri luze eta kizkurra, hur distiratsuak bezalako begiak eta ia nerabe batena zirudien gorpuzkera. Neska hark ordenagailutik jaso zituen begiak Eulalia andreari aditzean, eta segidan mutilaren galtzerdi erronbo gorri-urdinetan pausatu zituen, Eulalia andreak bere mahaitxotik betun ontzia eta zatar bat atera eta J.J. gizajoaren zapatak garbitzeari ekiten zion bitartean.

–Bakarrik bizi zareten mutilok! –esan zuen Eulalia andreak lastimaz–. Inoiz ez duzu ezkontzea pentsatu, Juan Jose?

J.J. gorritu egin zen Elenaren begiak bere oinetan iltzatuta sentitu zituenean... Gustatuko zitzaion ba neskak bere esku zainduei erreparatzea, edo bibotetxo gaztaina koloreari edo gorbatar! Ez. Eszena hura ez zen errepikatu. Egun hartatik aurrera, goizero garbitu zituen kontu handiz zapatak, baina horrek ez zion kendu gauean, amorru keinuz, errebeldiaz, ohituraz ere bai, ohepera jaurtitzea. Ezkongabearen maniak eta abantailak.

Baina goiz hartan ezberdina izan zen oso. Zapaten bila makurtu zenean, zerbait arraroa eta ezohikoa gertatu zen: eskuaz zerbait gogorra, oso latza ukitu zuen,

pinu baten azala bezain zimurtsua... “Maleta bat ote?”, pentsatu zuen berehala. Eta segidan txorakeria iruditu zitzaion aukera hura; izan ere, berak ez zuen inoiz utzi maletarik ohepean. Bakarrik bizi zen, eta ez zen orain hasiko bere oroimena zalantzan jartzen. Beraz, halakotetan ohi dena egin zuen: ohepean begiratu zuen, besterik gabe.

Eta orduan, ikusi egin zuen.

Hura sinestezina zen. Burua altxatu zuen, airea faltako balitzaio bezala, eta ingurura begiratu, norbaiti zerbait izugarria adierazi nahi balio bezala. Baina ondoan ez zuen inor. Etxean ere ez. Bakarrik bizi zen, eta horrek esan nahi zuen une haietan ez zeukala inor bere ikara hura partekatzen; inor ez, ohepean begiratu zuena; eta inor ez, haren atzean ezkutatzeko...

Hortaz, ez zuen beste erremediorik izan: listua iren-tsi, berriro belaunikatu, eta berriz begiratu, dena amets bat besterik izan ote zen esperantzan. Baina ez. Ez zen ametsa, eta onartu behar izan zuen, zur eta lur, han ohepean, patxada ederrean, egundoko krokodilo tzarra zegoela.